

Nafarkaria

• ostirala • 1997ko abenduaren 5a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Araitz-Betelu • Kultur aste oparoa.

Javier Armentia • Astronomiaz eta Iruñeko planetarioaz mintzo.



Iruñeko karriketako armarriak begiratzeko

Zapateria kaleko Etulaingo Jauregiko sarreran dagoen armari barrokoa.

• LUIS AZANZA

Juan Jose Martinenak, Nafarroako Artxibo Orokorreko zuzendariak, Iruñeko karriketako armariak bildu ditu liburu batean. Kaleetako etxe-aitzinetan diren 101 armariak ikusi eta haien berri jakin daiteke argitalpen horri esker.



• Araitz-Betelu •

Bailararen Egunarekin hasiko da kultur astea

Sei egunez musika, hitzaldiak, diapositiba emanaldiak eta jaia izango dira

Ama Birjinaren egunean ospatuko den Araitz-Beteluren Egunarekin abiatuko da aurtengo kultur astea. Araiztarrek eta beteluarrek beren eguna ospatzen duten bosgarren aldia da aurtengoa.



Araitz-Beteluko Kultur Astearen iaz eginiko dantza saioa. URKO ARISTI

EKITALDIZ BETERIKO EGUNA izango da abenduaren zortzia. Urtez urte bailarako eguna herri batean ospatzen da, eta aurtengoa Betelun.

Goizeko 10:30ak aldera festa usaina zabalduko da Beteluko karriketarik, herri guztian ibiliko baitira trikitilariak, txarangak eta zanpantzar txikiak. Jende helduak zintzarriak nola astintzen dituen ikusten ohituak bagaude ere, berria da ume txikiak lan horretan ikustea. Horretarako aukera izango da Betelun.

Kalejira dabilen bitartean, eskulangleak beren lanak paratzen hasiko dira herriko plazan. Zurez, buztinez eta beste hainbat gaietz eginiko artelanak izango dira ikusgai. Gainera, erakusketa bisitatzen den bitartean, taloa eta salda hartu ahal izango dira, besteak beste. Ohitura zaharrek izango dute, beraz, beren lekua. Eta ohitura ere bada, batzuentzat behintzat, Ama Birjinaren egunean mezatara joatea. Elizkizuna

12:00etan hasiko da, eta Sopelako abesbatza ariko da kantari.

Arratsaldeko 14:00etan, festan parte hartuko duten guztiak Zigari elkartearen herri bazkarian bilduko dira. Eta bazkalostea alaitzeko eta girotzeko, trikitixa ere ez da faltako. Iazko Euskadi Irratiko Trikitixa Txapelketan garaile izandako bikotea izango da bertan, hau da, Oskar eta Aitziber ariko dira infernuko hauspoa eta panderoa astinduz.

Aurreko urteetan festa hau azken egunean ospatzen zen arren, aurtengo egunera aurreratzea erabaki dute, partehartzea areagotu egingo delakoa. Izan ere, lehen, bezperako gaupasak partehartzaileak bermatu egiten zituen, gehienek lotan ematen baitzuten egun osoa, eta lehendik ere biztanle gutxi eta...

Asteartean, kultur asteko lehenengo hitzaldia izango da. *Nekazaritza erreforma berria, Europatik datorriguna* gaitzat hartuta, Intzako elkartearen ariko da EHNE sindikatuko kide bat, gaueko 09:30etan. Saio hori bukatu orduko, gazta eta sagardoa eskainiko zaie bertaratzen direnei.

Asteazkenean, Uztegin segituko dute kultur arloko ekitaldiek. Bertan ariko da Patziku Perurena, gure inguruko errege-erreginei buruzko jardunean. Hitzaldia ere 09:30etan hasiko da, eta Herriko Etxean izanen da. Patzikuk bukatutakoan, gaztaina erreak jateko aukera izango da.

Ostegunean, urrutian jarriko dituzte begiak arai-z beteluarrek. Izan ere, Andeetan barrena, inken herria ezagutzeko aukera emanen die Felipe Uriartek.

Gaintzan bizi den mendizale ospetsua izango da gidari Arribe-ko Elorri elkartearen, 21:30etan.

Asteburuaren atarian, ostira-lean, musika izango da Kultur Astearen protagonista, Hiru Truku taldea ariko baita Azkarateko elkartearen. Gaueko 21:30etatik aurrera, Joseba Tapia, Ruper Ordorika eta Bixente Martinez taularatuko dira Balerdi-lean. Kultur Astearen azken egunean, larunbatean, musika doinuak nagusituko dira. Herri afariaren ondoren, Jon Bergaretxe kantariaren emanaldia izango Atallun. Abesti zaharrak eta lasaiak kantatu ondoren, bixiagoko batzuk entzungo dira. Izan ere, Trakets taldea ariko da denak dantzan jarri nahian.

→ Urko Aristi

Bera

Xalto sariketako finala gaur

IRAGAN asteburuan Atarrabian eta Lesakan kanporaketak egin ondoren, gaur jokatuko da Goizuetako Umore Ona elkartearen Nafarroako bertsolari gazteen sariketako finala. Hamaizpi bertsolarik parte hartu zuten bi saio horietan, bitaldetan banaturik. Ostira-lean, Atarrabiako Etxe Beltza elkartearen afalostean kantuan aritu zen zortzikotetik Xabier Legarreta izan zen lehena, eta zuzenean finalerako pasea eskuratu zuena. Harekin batera aritu ziren kantuan Iñigo Olaetxea, Oskar Estanga, Erika Lagoma. Ekintza Landa, Ortzi, Iñigo Ibarra eta Julen Zelaieta. Puntuazioaren arabera, halaber, Iñigo Olaetxea, Oskar Estanga eta Erika Lagoma sartu dira finalera Atarrabiako saiotik.


Larunbatean Lesakan kantuan aritu ziren bederatzik bertsolarien artean Estitxu Fernandezek lortu zuen puntu gehien. Lesakarrarekin batera, Amets Arzallus ere finalean izango da. Saikatzeko behar adina puntu ez zituzten lortu Lesakan aritutako hauek: Xabier Terreros, Jaione Otxandorena, Nerea Bruño, Ekhine Etxepeteleku, Alaitz Rekondo, Josetxo Etxenike eta Imanol Lopez.

Nafarroako gazteei bideraturiko sariketa honen helburu nagusia Nafarroako bertsolari gazteentzat kanturako plazak sortzea da. Sariketan kantatzeko aukerarik gabe geratu ziren Estitxu Arozena (aurretik bitan irabazia duelako) eta Xabier Silveira (Xaltoko azken txapeladuna izateaz gain, Nafarroako txapeladuna ere badelako lesakarra).

→ sinadura

denbora pasa

XAMAR



Eskizofreniaz eskribitu zuen lehengoan Jon Alonsok EGUNKARIAN (edizio nazionalen), eta bereziki Nafarroan gertatzen den eskizofreniaz Euskararen inguruan. Alde batetik inkestek erakusten daugute jendea mintzoaren aldekoa dela. D ereduari goiti ari dela toki guztietan -Iruñerriaren bereziki-, eta bertzetik agintean daudenen jarrera guztiz kontrakoa dela aipatzen zuen Alonsok.

Erran gabe doa arrazoi guztia duela, baina pertsonalki eskizofrenia horrek ez du sobera eragina nerengan, ez -naski- naturala atxemaiten dudalaketoz, ohizko delakoz beizik.

Berriz, eta eskizofrenian murgilduta segituz, bertze batek badauka nahi nukeena baino

handiagoa, euskaldun-kontzientziadun artean ematen delakoz.

Eskolan egunero ikusten dut irakasle anitz kezkatutik haurrek ez dutelako Euskaraz asko leitzen, haiek guztia edo gehien-gehiena erdaraz leitzen duten bitartean. Eta gauza bera eskolaz landutako elekatzeari buruz. Euskararen galtzeak arrot nahigabaturik omen ditu bertze euskal irakusle franko, zemeit herritako hizkera galtzen ari den bitartean haiek direla kausa ere.

Bertze jende andana -gazte ala ez- kexu azaltzen da Iruñean euskal ikuskizun eskasiaz, Jean Mixel Bedaxagar, Xabier Lete, Antton Valverde... edota Lumaren musika aditza berrehun pertsonako areto bat ez denean

Izan nahi?

betetzen... dohainik eskaintzen dituztelarik.

Euskal egunkari baten aldeko aldarrikapenean inguruko jende guztia ikusten dut, baina behin lortu eta gero kasik inork ez du erosten... ez eta leitzen ere zeren egunkari batean informazioa bilatzen baita eta ez omen du inport mintzoa; hori bai EGUNKARIA-ren festan han izanen dira, naski!

Euskaraz bizitzeko eskubidearen alde behin eta berriz antolatuko dira manifestaldiak (ongi antolatua beti ere), baina eguneroko bizitzan gure baitan delarik eskubide hori gauzatzea, beste arrazoi anitz haren aintzinean dira ardura.

Funtsean, nori berea. Izan nahi eta izan artean bada tartea. Arte hortan dagoen eskizofrenia da nigan duen eragina.

Lizarra

Kilika taldeak Euskal Aste oparoa prestatu du datorren asterako

KILIKA EUSKARA TALDEAK, LIZARRAKO Udaleko euskara zerbitzuaren laguntzarekin, era anitzetako ekitaldiak prestatu ditu heldu den asteartetik aitzina. Euskal Astearen xedea, batetik, urtebete honetan lanean diharduen Kilika euskara taldea ezagutzera ematea da, eta bertetik, gure hizkuntza zaharra karrikaratzea.

Asteartean *Mitologia: Euskal Herriko mitoak atzo eta gaur* diapositiba emanaldia eskainiko dute Patxi Sanz, Aitor Atxega eta Jose Javier Fernandez lasartearrek. Asteazkenean, berriz, Jose Mari Karrere ipuin kontalariak *Mingain haragia* ikuskizuna antzetzuko du, antzaz emakumeenak soilik diren ipuinak edatsiz. Bi ekitaldiok Frai Diego Kultur Etxean egingen dira, 20:00etan. Ostegunean Lizarrako euskararen egoera aztertzea helburu duen mahai-ingurua egingen da La Bota Elkartearen. Lizarra Ikastola, Beñat Etxepare euskaltegia eta Remontival eskolako ordezkariak ariko dira eztabaidan. Ostiralean, Zazpi Eskale taldearen eskutik, bertso musikaldia izanen da Julian Romano Musika Eskolan, 20:00etan. 22:00etan afaria egonen da La Bota Elkartearen. Eta larunbatean, Lizarrako euskararen egoera, historian zeharrekoa eta gaur egungoa, islatuko duen erakusketa zabalduko da. —> Kristina Berasain

Sakana

Irurtzun eta Altsasuko euskararen asteak bata bestearen segidan

AURTEN BATA BESTEAREN SEGIDAN antolatuta dira Sakanako bi herriotan euskararen asteak. Irurtzungoa hilaren batean hasi zen

Iruñea



JOXE LACALLE

Zaldikok euskararen alde zein kontrako sariak banatu ditu

Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartek herrialdean iaz euskararen aldeko eta kontrako lanean nabarmendu direnentzako sariak banatu ditu. Zaldikoren gorotz joarea Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretza taldeari eman dio, unibertsitatean euskararen normalizazio plana behin eta berriro oztotpatzeagatik. Lamien urrezko orrazia, berriz, Nafarroako Unibertsitateko Abarrots eta NUPeko euskara taldeek jaso dute (argazkian Zaldiko Maldikoko kide batzuekin batera ageri dira). Betiere, bi taldeok, unibertsitateko agintariek ez bezala, euskararen alde ongi lan egin dutelako.

eta Altsasun, berriz, datorren asteartean abiatuko da. Gaur bertan, 20:00etan gazte eta helduentzako antzerkia ikusteko aukera izanen da Irurtzungo Kultur Etxean: Ttanttaka taldeak *Umekeriak* eskainiko du. Astelehenean, Irurtzunen Nafarroako Sokatira Txapelketako kanporaketako saioa egingen da. Bertan bost taldek hartuko dute parte: Beti Gaztek, Aresok, Txantreak, Imotzek eta Ultzamak. Altsasuko Euskararen Astearen inoiz egin ez den ekintza izanen dugu aurten: Garraxi Irratitik 24 orduko irratsaioa euskaraz. Emakumearen bilguneak Euskararen Astea abian jarriko duen ekintza antolatu du. Helduentzako ipuin kontalari baten emanaldia izanen da asteartean, 19:00etan, Herria Eginez elkartearen. Datorren asteazkenean, berriz, Monfragueko parke naturalari buruzko proiektioa emanen du Miel Nazabalek. Diapositiba emanaldia arratsaldeko 8:00etan izanen da Gure Etxean

Altsasuko mendigoizaleek antolatuta. Ostegunean *Selena eta Milena* haurrentzako antzerki emanaldia izanen da Altsasuko liburategian eta *Xirixta, Kometa* eta *Ipurbeltz* aldizkariaren harpidetzak zozketatuko dira.

Altsasuko Euskara Taldeak asteari amaiera emango dien bi ekintzak antolatu ditu. Ostiraleko bertso afarian Ekintza Landa, Mikel Urdangarin eta Josema Leiza bertsolariak parte hartuko dute. Aferia gaueko 9:00etan hasiko da eta txartelak Lur Azpin, Udalean eta AEKn lor daitezke. Igandean, astearen azken egunean, Enkarni Genuaren *Itsas Miñen* txotxongilo emanaldia izanen da 6:00etan ludotekan.

AEKren eskutik, berriz, 24 orduz euskarazko irratsaioa egingo du Garraxik. Gaur zortzi, 18:00etan hasi eta larunbateko 18:00ak arte euskarazko emankizuna entzuteko parada izango dugu FMko 101.9an. —> Amaia Amilibia

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Hegaztien migrazioaz

Guaixe Sakanako hilabetekariak hegaztien migrazioa aztertzen du azken zenbakian. Amaia Amilibiak sinatu erreportaiaren bitartez. «Udazkenarekin batera hasten da hegazti gehienentzat migrazioa. Hiru migrazio mota daude hegaztien artean: motza, mendietatik bailarara egiten dena; erdi migrazioa, lur eremu berdinean batean hegoalderantz egiten dena; eta luzea, askotan kontinenteak zeharkatzen dituen migrazioa dugu azken hau. Euskal Herria, Europatik Afrikarantz doan hegaztien migrazioaren ikusle da. Sakanan ehizarako zaletasun handia dago. 20.000 hektareako lur zatian,

11 ehiza-barruti eta 1.000 ehiztari inguru daude gure eskualdean. Sakanako 11 ehiza-barrutiak honako hauek dira: Olazti-Ziordia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi-Bakalku, Etxarri-Aranatz, Ergoiena, Arbizu-Lakuntza-Arruazu, Uharte-Arakil, Arakil bailara, Irurtzun eta Izurdiaga-Errotz. Ehiza-barruti bakoitza ehiztarien elkarte batek kudeatzen du, eta beste lurraldeetan ez bezala, Sakanan ez dira enkantera ateratzen. Sakanako ehiza-barruti guztiak publikoak dira. Beraz, hauek kudeaketa dagokion ehiza elkartearen esku jartzen du tokian tokiko udalak.

Nafarroako Gobernuak egin Ehiza Plangintza Berezirako behin-behineko proiektua mintzagai du **Guaixe**ko artikulua, halaber: «Nafarroako Gobernuak irailaren bukaeran Ehiza Plangintza Berezirako behin-behineko proiektua aurkeztu zuen. Bi hilabeteko epean nekazari, abeltzain, ehiztari eta ekologistek iradokizunak egin ahal izanen dituzte urtearen akaberan behin betiko onarpena eman aurretik. Proiektu honek 10 urtetan gastatzeko, 1.766 milioiko aurrekontua du. Besteak beste, nafar guztiak ehizatu ahal izatea lortu nahi da plangintza berezi honen bidez».

Donesaturdiko oilarra lumatzen Juan Kruz Lakasta

Juan Cruz

Juan Cruzek 47 urte ditu, ezkondua dago, hiru seme-alaba dauka eta Nafarroako Aurrezki Kutxan lan egiten du, Carlos III etorbideko egoitza nagusian, *cambio, change, exchange* leihatilan. Egutegiko goizeko zortzietatik arratsaldeko hiruretara pezetak jasotzen ditu, eta banatzen ditu liberak, librak, dolarrak... Buruz dakizki moneta horien guztien kotizazioak. Halaber, badaki buruz kalkulaten pezeta kopuru jakin bat 1.000, 10.000, ligoal dio zein, zenbat den moneta horietan. Ordenadoreak tiketa ateratzen duenerako, berak beti emaitza kalkulatu dauka.



Juan Cruz lanaz nazkatuta dago, horrenbeste monetaz nazkatuta. Lan egun guztiak berdinak iruditzen zaizkio: grisak. Horren ondorioz, bolada batez grisa iruditu zitzaion bere inguruko guztia, bai bere lana bai eta bere familia eta bere burua ere. Zorionez, duela gutxi bideo-kamera erosi zuen, eta horrek dena aldatu zuen. Beno, dena ez. Oraindik gris ikusten du bere inguruko guztia. Alta, hori ez da gertatzen, lehen bezala, ohikeriaren poderioz, baizik eta guztia kameraren bisorearen bitartez ikusten duelako, txuribeltzean. Tramankuluarekin zoraturatuta dabil.

Juan Cruzek hainbat bideo grabatu ditu: lobaren bataioa, arrearen ezkontza, seme nagusiaren futbol partidu bat... Orain arte egin duen grabaziorik hobena, ez bairik gabe, seme gazteenaren lehen jaunartzearena da. Grabatu zuen semearen irudia ostia hartzen ari zela, emaztearen lehen planoan malko batek ihes egin ziola, familia osoa jatean elkartuta... Maisu lana da.

Haatik, Juan Cruzek ez dio bideo hori inori erakutsi. Beldurra ematen dio. Bideoan ikus daitezke kaputxadun mordoak jatekera sartzeaz zeudela, euria ari zuen, bi pistola zeba Paquitak semeari oparitutako jostailuak eta bakearen aldeko mezua batapaizak mezan esandakoa. Eta berak ez du espexera joan nahi.

Iruñeko armarrak ezagutuz

Juan Jose Martinena agirizainak Iruñeko karriketako armarrak biltzen dituen liburua kaleratu du

Iruñeko Alde Zaharreko karriketan dauden armarrak ezagutzeko aukera eskaintzen du Juan Jose Martinena Nafarroako Agiritegiko zuzendariak kaleratu berri duen *Iruñeko karriketako armarrak* liburua. Argitalpenean hiriburuko etxe-aitzinetan kokatuak dauden 101 armarrak jaso ditu.

N AFAARROAKO HIRIBURUKO ALDE ZAHARREKO KARRIKEN zurrubiloan sartzean inork gutxi erreparatzen du kale horiek lekutzen dituzten etxeek duten historian, inork gutxi sumatzen du askotan aitzinaldean duten armarraren eta haren esanahi eta historian.

Lan hori egin du Juan Jose Martinena, Nafarroako Artxiboko zuzendariak, Iruñeko Udaleren laguntzaz gaztelaniaz zein euskaraz argitaratu duen *Iruñeko karriketako armarrak* liburuan. Neguko arratsalde hotz eta tristeetako ordu txikiak lagun zituela hasi zen Martinena hiriburuko karriketako armarrak biltzen eta sailkatzen. Egileak lana egiteko Nafarroako Artxibo Orokorreko Vicente Aoz de Zuzak 1785 eta 1800 artean idatzitako izkribuak izan ditu esku artean. Izkribuak oso baliagarriak izan zaizkio Martinenari, Aoz de Zuzak ordurarte Iruñeko karriketan zeuden 150 armarrak bildu baitzituen. Halaetako asko galdu dira, baina 1832ra arte armarrak egiteko baimena indarrean egonenez berriago batzuek hartu zuten haien lekukoa.

Gizarte estamantaletik gaur egungora jauzi egin arte, aitoren seme baten etxea biztanle arrunt batena jendaurrean garbi bereizten zuten kanpoko ikurra baino ez zen armarraria. XVIII. mendearen bukaeran Alde Zaharrean zeuden 1.600 etxeetatik 150 armarridunak baziren ere, egun Iruñean etxe aitzinaldeetan harriz zizelkatuak agertzen diren 101 armarrak ezagutzen dira. Nolanahi ere, XIX. mendearen hasieran oraindik ere Nafarroako Erresumako epaitegietan aitoren semezta ziurtatzen zuten agiririk eman zela nabarmendu behar da. Azkenekoak 1832an eman ziren, Fernando VII. a hil eta Erregimen Zaharrak ezartzen zuten gizarte estamantalak porrot egin zuten arte.

Agiritegietan, udal erfidetan eta parrokietako jaiotze agirietan zokomiran ibili ondoren, guztira Iruñeko Alde Zaharreko 10 armarrak sailkatu ditu Nafarroako Artxibo Orokorreko zuzendariak. Baina zer gertatu zen desagertu diren berrogeita ar-

Gehienak barroko eta rokoko tankerakoak diren arren, neoklasikoak ere badira alde zaharreko kale mehar eta estuetan. Horiek 1790 eta 1830 bitarteko aitonen semei dagozkie. XVIII. mendea baino lehenagokoak bakan batzuk dira


marriekin? 1836ko Desamortizaziotik aitzina, maiztergoak deuseztatzea erabaki zenean alegia, hiriko etxeak berriztatu egin ziren. Garai bateko etxe zahar, ilun eta estu asko bota eta haien lekuan beste batzuk eraiki zituzten, zabalagoak eta erosoagoak. Baina armarraren galera handiena, batez ere, XX. mendearen lehenengo erdian gertatu zen. Orduan etxe-aitzinalde asko moldatu eta berritu ziren eta hori dela eta armarrak asko galdu ziren.

Gehienak XVIII. mende bukaerakoak

Eguraldiaren gora-beherak edota erasak jasan izan badituzte ere, orokorrean Iruñeko armarrak ongi iraun dute. Ez dira oso zaharrak, gehienak XVIII. mendeko bigarren erdikoak direlako. Nolanahi ere, badira, besteak beste, Caldereria eta Navarrieriako kaleetan ezabatutako armarrak, batzuetan etxea botatzen zelako desagertuak edo aitoren seme ez zen batak erosi eta kentzera behartzean urratutakoak.

Martinena dioenez, armarrak gehienak garai horretakoak izatea ez da kasualitatea. Armarraria edukitzeko beharrezkoa zen aitoren seme baitmenan epaia 1770 eta 1785 bitartean eman ziren. 1973an Karlos III. a erregeak Nafarroan ezarri zuen Armadan zerbitzu emateko agindua eta aitoren seme zirela frogatzeko aukera zuten familiek hori egin zuten, aitoren semeak ez zirelako soldaduskara joateko zozketan sartzen. Beraz, kalek datai begiratuz orduan zeuden armarrak bakoitza rokokoak edo XVIII. mendea baino lehenagokoak ere aurkitu dira. Salbuespenak salbuespen, Iruñeko orduko etxeak 200 urteko bizitza izaten zutela aintzat hartuz, zaila da oso XVIII. mendea baino lehenagoko etxerik aurkitzea. Hori dela eta, etxearekin batera han bizi zen aitoren semearen leinua adierazten zuen armarraria ere desagertu da. Martinena nabarmendu duenez, Katedralera eta San Zernin elizako hilobiak kenduta,

erako eta rokokoak gorde dituzte. Gehienetan bistatu daitezke harriarteak eta beste apaingarri batzuek. Batzuetan hegaldun aingeru pottoloak edo lehoi haundi eta beldurgarriak; edo beste irudi euskarri batzuk, eta itxura hieratikoa duten mozorroak, behealdean erlaiz moduan jarririk.



Txerriaren armarrak. Luis Azanza

Hiriburuan dauden armarrak gehienak garai horretakoak badira ere, tituludun nobleak diren jauregiak —Gendulain, Rozalejo eta Ezpeleta, beste batzuen artean— eta garaian izen nabaria zuten beste batzuk kenduta, armarrak ez daude oso apainduak.

Gehienak barroko eta rokoko tankerakoak diren arren, neoklasikoak ere aurki daitezke alde zaharreko kale mehar eta estuetan. Horiek 1790 eta 1830 bitartean lortutako aitoren semei dagozkie. Biribilak, apaindura eskasekoak, kiribilak eta txirikordak dituzte ezaugarri.

Oso gutxi badira ere, XVIII. mendea baino lehenagokoak ere aurkitu dira. Salbuespenak salbuespen, Iruñeko orduko etxeak 200 urteko bizitza izaten zutela aintzat hartuz, zaila da oso XVIII. mendea baino lehenagoko etxerik aurkitzea. Hori dela eta, etxearekin batera han bizi zen aitoren semearen leinua adierazten zuen armarraria ere desagertu da. Martinena nabarmendu duenez, Katedralera eta San Zernin elizako hilobiak kenduta,



Redin kaleko XVI. mendeko armarraria. Luis Azanza

bakarrak Basotxo eta Redin kaleko gurutzak, San Frantzisko karrikako Cruzat familiaren bi armarrak eta Labrit leinuko ondorengo bati ustez dagoak. Caldereria eta Mercaderes karriken arteko bidegurutzan dira hirian leinu zaharrekoak izan ziren familien oroiak. Lehenengo biak XVII. mendeoko dira eta besteak XVIIkoak.

Orduko hiritarren lekuko


Eraikinek eta dokumentuek bezala armarrak ere garai hartako biztanleen izaeraren lekuko dira. «Oso erakusgarria den garai bateko lekuko dira. Garaiko jendea hobekiago ulertzen laguntzen digute. Nabarmenki antzematen da zer nolako jendea biltzen zuten kale bakoitzak eta batzuk besteak baino hobekiago zirela. Biztanle haien egoera soziologikoa eta ekonomikoa ulertzen laguntzen du, nola bizi ziren eta zertan nabarmentzen ziren euren etxeak besteengatik», dio lanaren egileak. Egun oso xumea den San Anton kalea garaian aitoren seme askok izan zutela bizileku nabaria da. Estafetak 14rekin eta Zapateriak 9rekin aurrea hartu badie ere, San Antonen Kale Nagusian bezala zortzi armarrak topatuko ditu ibiltariak. Zergatik asmatzea ez da batere zaila. XVIII. mendean kale haren ondoan dagoen Kontzejuko Plazan kokatu zen Erret Kontseilua eta Nafarroako Erreinu Entzutegia. Beraz, Zapaterian, eta batez ere, San Antonen bizi izan ziren aitoren seme ziren magistratuak, abokatuak, erret eskribauak, prokuradoreak, justizi idazkariak; orduan deitzen zen bezala, Kuria osoa.

Bada beste berezitasun alpagarriak ere Martinena egin duen sailkapenean. Gauraino gorde diren armarrak gehienek, %45ek, familia bakar bateko armak agertzen dituzte, eta bakan batzuek hiru eta lau familatoko abizenak. Ugari dira halaber Nafarroan aitoren semezta komuna zuten bailaretako armarrak. Askok nondik zetozen ziurtatze hutsarekin lortzen zuten ballara horretako armarraria paratzeko baimena. Baztan, Larraun, Erroñkari, Aezkoa eta Lanako bailaretako biztala

guztiak aitoren seme ziren eta ballaran etxe baten jabe zirela ziurtatzearrekin ballarako armarrak jar zezaketen. Beraz, ez da harritzekoa izen-abizen batzuenak ez ezik, ballara bateko armarrak ere topatzea. Errepublikatuen Larraungoa da eta ondotik jarraitzen diote Aezkoak eta Baztanek. Ezagunak ez ziren toki batean ezagutzera emateko jarriak dira. Aipatu bailaretatik Iruñera hurbiltzen ziren aitoren semeak ez ziren ezagunak hirian eta nor ziren adierazi behar zuten. Bestalde, Descalzos eta Jaraunak ez da armarririk aurkitu, han artisauek eta behargin xumeak bizi zirelako.

Esanahi aldaketa

Mendeak pasatu ahal armarririk zuten esanahia galdu dute. Martinenaren iritziak, garai haietan armarrak ez zuten gaur duten handinahiz izatearen seinalea. «Orduko jendeak praktikoagoak ziren eta ez zuten sekulako armarririk kokatzeko aintzatu. Beste gauza bat zen aberats berriaren surria, orduan baimena inprimatzeko agindua lortu zuten eta leinuaz ezin harro egon eta diruarekin konpontzen zutena». Egun, orduan Erregeak emandako pribilegioa zena egun ohitura bilakatu da. Askok etxe-aurrean armarrak kokatuko dute edota besterik gabe armarrak eraikiko dute. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Artxibo Orokorreko zuzendariaren aburuz, orain piztu den interesa us-teetan oinarrituta eta gaizki aholkatutakoa da. «Jendeak ikerketa genealogiko serioak egitea ona da aitoren seme izan edo ez, atera edo ez armarririk. Hemengo artxiboan egunero ehundaka kontsulta egiten dira eta jendeak eramaten du agiri armarraria %99tan ez dagoen arren. Lehenago Erreinuoko legeak armarririk izan gabe paratzen



Estafeta kaleko armarrak barrokoa. Luis Azanza

Heraldika gaitan aditua

Juan Jose Martinena iruindarrak Filosofia ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean eta 1990an Historiako Doktoregoa lortu zuen. 1987az geroztik da Nafarroako Artxibo Orokorreko zuzendaria, eta egun Nafarroako Unibertsitateko irakasle laguna era bada. Artxibozaina izanik, eguna paper eta agiri tartean ematen du eta informazioa hain eskura izateko heraldikaren inguruan hainbat lan kaleratzeko aukera eskaini dio. Martinena afizioa eta beharra uzartu ditu. Harreran jori horren lekuko dira idatzituen liburua eta artikuluak. Aipatu dituen liburua eta artikuluak. Aipatu dituen liburua eta artikuluak.



patzekoak dira *La Pamplona de los Burgos y su evolución urbana, Nafarroa, gazteluak eta jauregiak, Nafarroako Erreinuoko arma liburuak, Iruñeko Gotorlekua edota Nafarroako Jauregia*.

Iruindarra izanik Iruñeko Alde Zaharretik ibiliz eta hangoaz kezkatutik hango armarraren katalo- goa egitea besterik ez dela dio bere lana. Iruñeko egungo armarrak biltzen dituen lehenengo liburua da. Duela 30 urte Pedro Garcia Merinok Navarrieriakoak biltzeko sailoa egin zuen eta haren bidea jarraituz Martinena kaleetan agertzen diren guztiak jaso ditu. «Iruñeko eraikinekin buruz esan da nahikoa gauza, baina armarrak ez ditu inork aipatu. Lana baliogarria izan da XX. mende bukaeran Iruñean zer nolako armarrak zeuden jakiteko», nabarmendu du.

zuena gogor zigortzen zuten eta orain askatasun osoa dago. Jendeak ez dagoen abizena hartzen du. Adibidez Nafarroan hain ugariak diren herrietako abizenak batzuetan hiru armarrak ezberdin ditu. Oso ikerketa serio baten emaitza izan behar du eta ez nolahi egindakoa», gaineratu du.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Orixe Tuterara etorri zenekoaz: 1918-1919 (eta I)

«Aquel año fue para mí fecundo en tribulaciones, y sería cosa de nunca acabar si quisiera detallarlo todo». Orixe, *De mi vida externa*, 1943-2-24.



Nikolas Ormaetxea Pellejero gipuzkoar nafartuxeak urtebeteko edo egonaldia eman zuen Erriberako hiriburuan, eta Erriberak berak eragin ez bazuen ere, zinez orotzapen txarra izan zen hemendik eraman zuena. Gazteren gazte bildu zen Orixe josulagundiararen abaroan Xabierreko etxean, 1904.ean hain zuzen ere, Orixekoak hamasei urte zituelarik hots. Orduko beste josulagunek egiten zuten bide berberari ekinez, ikas bidaztia eten zuen maisu lanetan murgiltzeko. Haatik, hiru-lau urtetako abagadunea izaten zen hark sei urte ebatsi zizkion Orixeri. Berak zigortzat zeuzkan azken bi urte horietako lehenbizikoa Tuterako etxean egokitu zitzaion, 1918/1919 ikasturteari zegokiona alegia. Esan daiteke, beraz, josulagundiaren goikargudun zenbaitzuk Orixe ordenetik egoteko asmatu jukutria, Tuteran hasi zela nabarmentzen, bestalde, azpijoku arrakastatsua izan zena dualkai.

Urtero bezala, 1918.eko hartan ere, Ebrok gainezka egin zuen lagundiaren lekaidetxe ondoko auzo beheeretan zorianeko uholdeak eraginez, nahiz zehatzago izatearren, Orixek ikusiko zitukeena ez ziren larrietakoak. Bai larriak izan zirela, ordea, urte hasierako hormaldiak, ia olibondodi guziak karroindatu zituztenak. Uda partean berriz, gripe izurrite ikaragarri batek populazioaren erdia baino gehiago tolestu zuen makaldu, eta hildako bat baino gehiago utzi zuen urrikigabe. Aurrerago ikusiko dugun bezala, etxe barruko arazoek zein Orixe beraren osasun eskasak eritu zuten, eta zeinek daki, hirian jaun eta jabe nagusi zen gaixoaldiak zer ikusirik ere ote zuenentz Ormaetxearen osasunean. 1919.ekoa bare eta jabal igaro zen, oso aipagarria liteken

inolako gertakaririk agitu barik, ezpada bere, plaza zaharrean eginiko azken zezenketa. Neguko paseatortan zetzan hartan burutu atzeneko zezenketa sobera txarra izan zen; Dominguin izeneko toretzaileak uko egin zion egokitu azken zezena hiltzeari, eta horrek sortu zuen iskanbila zalapartatsua zela eta, pikoloek hustu behar izan zuten plaza. Bukaera hitsa zinez, Orixeri, seguru aski, atzenduko ez zitzaiokeena.


Nikolas Ormaetxearen bizitza ezpalak ongi baino hobeto ezagutu ahal izateko, lehenbiziko urteei dagokienez bederen, Landetako Saubion hirian erbestean zegoela berak ondu *De mi vida externa* autobiografia laburra zaigu ballagarria oso. Tuteraniko egonaldiaren gaineko aipamenak badakartza, gainontzekoekin erkatuz gero, luze eta maratz, bere gogoan itzal luzea laga zioalako zantzu.

1918.eko martxoan bidali zuten Tuterara, beraz, urte terdi eman zuen gure Erriberan, hau da, 1917/1918 kurtsoa amaitzeko geratzen ziren hilabeteak. 1918/1919 ikasturte osoa, eta bi urte horietako udak ere. Orduko etxean 46 fraide zeuden, eta gehienak euskaldunak ziren. Besteen artean, Pedro Etxebarria edota Bernardo Egaña euskal sermoilariak aipa litezke. Errektorea Joakin Etxenike donostiarra zen eta gogo zuzendaria Pedro Ongai lizaragarra. Orixek Tuteran bete behar zuen lana, mutikoei literatura bere osotasunean

irakastea zen, generoak zein historia. Hasiera-hasieratik, arazoak izan zituen errektoreekin, baina Orixerekin izan zuen harreman teinkatia ez zen sekularenean laxatu. Kurtso bitartean, behin eta berriz, haren ikasleek porrot egiten zuten zuten errektoreak beste gutzientz aitzinean, harrokeriaz beterik eta inolako eragozpenik gabe. Kurtsoa amaitzen zenean, Logroñoko institutura joaten ziren ikasleak aztertzerara. Orixerenek ikasturte hartan hantxe lortu zutenaz ez zen beste inolaz ere lortu: bi ohorezko matrikula, bederatzi bikain, 18 oso ongi, eta, gainontzekok orok, gainditzea. Halaz ere, errektoreak ez zituen emaitza haiek kontutan hartu nahi izan, eta probintzia buruari bidali zion txostenean Orixeren lana gutziz txartzat eta zeharo ondoriorik gabekoa zeritzola jakinarazi zion. Aitzaki honi eskerrak, beste urte batez luzatu zioten bere irakasle aroa. Probintzia burua zen Leza aitari 1919.eko abuztuaren 21ean Orixek helarazi zion deskargua, antza, ez zitzaion jatako balio. Buruhauste neketsu hauez guztiez gainera, hezueria erreumatiko erasoaldi bat izan zuen, eta goatzean hiru aste eman ostean, hogeiki kilo inguru galdu zituen. Gorputz ahul hori hobetzeko, Eiteroko mañuetara bidali zuten. Euskalerriko mugerriko urek osasun fisikoa itzuli ziotelako segurtasunean gaudeke, baina gogo makilatuaren osagarria itzuliko ziotenentz ezin esan.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Azaroa badator

JUANBERRI ZAIGU AZAROA; beste aldetik, ordea, oraintxe datorkigula dirudi. Gure baratzeetara begiratzea aski. Apenas nabarmentzen den azaburuak besterik. Esker gaiztokoa izan bada ere, menderen mendetako negute beltzetan, zerrikiak baino arima gehiago salbatu du azak gure herriskotan.

Nafarroako Foru Zaharrak ere, halaxe esaten du: «*Et el huerto sea en que puedan ser XIII cabezas de colles quando sean grandes*». Horratx, nonahiko jendaje arrotzak, herri batean «*habitante*» edo «*moradore*» izan ondoren, bertako «*vecino*» gradua hartzeko bete behar zuen baldintzetako bat: gutxienez hamairu azaburuko baratza ukan.

Izan ere, Nafarroa ertarokoan, barazkirik usuena eta ezagunena aza baitzen, baba eta tipulekin batera. J. Juriok berak eman izan digu, 1294ean Artaxonan saldu-tako azaburuengatik Larraga aldeko laborariek ordaindutako zergen berri. F. Idoatek ere bai, Olliteko erregeren palazioan, Juanaren bataiokoa, 1358ko buruilaren 2an, janari onskoen artean aza atera zutelakoa; eta 1405eko Eguberri egunean berdin. Bistan da berebiziko inportantzia izan duela azak gure artean. Horregatik harritzen nau, *Tipulatze, Babaze* eta *gisako* aztarnen alboan, azari atxekitako euskal fitonimorik inon aditu ez izanak.

Nafarroako lege zaharretan ageri diren bi petxa ere, badirudi azari eta urdeari atxekiak zirela: *eyurdea* eta *azageriko* delakoak; baina, segurantziaz inork ez daki azkeneko honen etimologiarik: «*Ay una pecha que es clamada açaguerrico en basquenz: aqueylla pecha deve ser quanto un ome puede levar en el ombro*». Edo agian, *azao+gerriko* (gerria beteko zama) esan nahiko ote du?

Dena den, negu gorriko eltzean, aza eta zerrikiak elkarrekin maizenean. Esate bateko, erdal-dunen ¡*Vaya, vaya!* esanerari, auskalo noiztik nora, *Azak eta urdaya!* erantsi izan dio euskaldunon gogo bertsozaleak; eta Bar-bjeriren «*Cancionero de los siglos*

XV y XVI» liburuan ere honako pasarte hauxe azaltzen omen da kanta batean: «*darte he urdaya con coles, qués muy rico comezón*».

Urdaiz gizona ezezik, zerri odolkiak, saiheskiak, hezurkiak, azarekin nahasita, neguko eltzekorik gutiziatuenak genituen oraintsu arte; eta geroztik, barazki berriak Ameriketatik sartu ahalean, aza babernak, aza patatak, eta antzekoak ere bai. Aza hutsak ere aztarren nabarmenak utzi ditu, ordea, gure etxeetan. Aza klaseak berak ez ditugu gutxi: aza beltza, aza zuria, aza berdea, aza kizkurra (Milango aza) urraza (letxuga), zakurraza, ahuntzaza...

Azkeneko honek gure herriskotan ohikoa zen ahuntzala ekarri dit gogora; izan ere, bildurrik haundiena, ahuntzek inoren azak ondatzekoa izaten baitzuen; eta halakorik gertatu ezker, bere poltsetik pagatu behar dainuak, eguneko jornal pizarra galduz. Usario edo bildur honen lekuko, badira kanta ezagun askiak, «*Akerra torri xaku, ortura asa jaten (...)* akerra ken, ken ken ken» saillekoak.

Bestelako dantzatan, jolasetan, kantatan edo esaneran ere maiz ageri zaizkigu «*Aza landare, aza gazte landare, aza kirtena, azalorea, azaburua*» eta gisakoak, sinbologia ugarietan. Baina, besteak beste, ezin ixilean gorde, umetan Goizuetan ikasitako haurkanta xalo hura:

*Dulun dulun yoare!
Gure beyak non dirade?
Maloxarreko baratzan
bost aza landare!*

Nork asma egun, bost aza landare haiek behiala gordeko zuten xarma sinbolikoa! Arrunten bestelakoa da, honako bertso ezagun hau:

*Gotzean porrusalda, eguerdian azak
Aise kabitzen ote ipurdian galtzak!
Zer zirela uste huen atsuaeren saltsak?...*

Aspalditik banekien nik bertso osoa, baina, azazale amorratu izaki, galtzak bete haize ipurdian, ibili beharko bolada batian.

Ziria

• Motxorrosolo •

Nafarroa bihotzean

ELKARREKATATZEA, ERRESUMAKO GARAIO EXTREMADURAN IZAN DA. Aurtengoan, arnoa edotauralagun, bihotza alaitzeko parada izanen dute Nafarroaren esentzia bere baitan daramatenek. Txurigorritz abesten diren zenbait kanta konpaktatu dituzte, anitzasuna ondarraldirako. *Agur Jaunak, canción popular de Baja Navarra* (sic), Urbasaren bihotza den Biotzatik urrun denboraldi luzea igaroko du bat baino gehiagok. Nafarroa bihotzean.

Javier Armentia ☉ Iruñeko Planetarioko zuzendaria

«Astronomia garai onean da»

Joan den azaroaren 26an lau urte bete zituen zabalik Iruñeko planetarioak. Gerotik, astronomia aspertu gabe eta hainbat modutan ikas daitekeela erakusten saiatu dira izan dituen 600.000 bisitariei. Javier Armentia zuzendariaren ustez, kultur zentro ere bada.

EGUBERRIRAKO PRESTATU DUTEN emanaldi bereziari azken ukituak ematen dihardu Javier Armentiak. Astronomia liburuz inguraturik, Lurraren plastikozko irudiarekin txantxetan ibili ondotik, hitz egiteari ekin zion.

■ Badira lau urte Planetarioa zabaldu zela. Orain arte egin-dako bidea polita izan da?

Baletz uste dut. Batetik, hemen lanean gauden guztiok hainbat ekintza kultural eta nagusiki zeruarekin zerikusia zutenak ekartzeko apustua egin genuen. Ikusleak jakin izan du Planetarioan gustatzen zitzaiena aurkitzen eta horregatik izan ditugu 600.000 bisitari baino gehiago lau urteotan. Urtero batez bestekoa 150.000koa izan da. Ez dago gaizki, horri eutsi eta etorkizunean igo egin nahi genuke. Bestetik, Planetarioa sortu zenean jendearen jarrera ez zen ona, inork ez zuen pentsatu ere egin Iruñean Planetario bat behar zenik. Egin eta gero, ongi doala ikusi dugu.

■ Zer eskaintzen du Planetarioak?

Planetarioa kultura zentro bat da. Planetario deitzen den arren eta izarrak proiektatzen dituen areto bat (Tornamira) duen arren, Planetarioa errealitate zabalagoa da. Egun martxan dauden planetarioak zientziaren hedapenaren kontzeptu zabalagoari erantzuten die. Bertan jendeak batere akademikoa ez den zientzia eta astronomia ikasteko modua aurki dezake. Planetarioak, batez ere, zentzu ludikoa duen jakintza kulturala saltzen du.

■ Lehenengo planetarioa mende hasieran eraiki zen. Orduz gerotik asko eboluzionatu dute?

Lehenengo planetarioa Alemaniako Berlin hiriburuan 1920an eraikitako Ceis izan zen. Orduko teknologiak eta gaurkoak zerikusirik ez badute ere, oinarrian guk dugun planetarioa oso zaharra

da, orduko planetarioaren ideia eta gaurkoa bera baita. Ceisen sistema zen zerua kupula batean egiazkoa balitz bezala proiektatzeko aukera izatea. Kontzeptu horrek oraindik ere badirauren arren, egun dena automatikoa da, eta garai hartan ezezagunak ziren ikus-entzunezko hainbat efektu gehitu zaizkio. Era berean, planetarioek, orain arte, zientzia kontatzeko era oso akademikoa zuten eta Europan eta Estatu Batuetan zeudenak unibertsitate, ikastetxe eta astronomia behatokiarekin uztartuak zeuden. Egun, aldiz, aisialdirako zentro zientifikoak dira.

■ Nafarroan bada kultura astrofisikorik?

Uste dut ez zegoela. Haley kometaren agerpenaren ondotik, 1986an Nafarroako Astronomi Elkarteak sortu zen eta bazen afizioa, baina kulturaz hitz egitea gehiegizko da. Ez dago astronomiarekin edota astrofisikarekin zerikusia duen goi mailako ikasketarik. Nahiz eta astronomiari ekarpen handiak egin zizkioten nafarrak izan diren, besteak beste XVII. mendean Francisco Tornamira, Nafarroa beti zientziari bizkar emanez bizi izan da. Dena den, orain jakiteko gogoa handiagoa da. Gainera, espazio zientziak eta astronomia eguneroko berri dira komunikabideetan. Komunikabideak konturatu dira badirela aurrerakuntza asko eta jendeak irakurri eta ingurunearekin erlacionatu egiten dituela. Astronomiarentzat garai ona da hau.

■ Zer egiten du falta den kulturari hori zabaltzeko?

Batetik, planetarioa publikoarentzat komunikabide bat gehiago da, datuak igortzeko bidea delako. Bestetik, planetarioaren lan handienetako bat hezkuntza da. Planetarioak joan den ikasturtean egin moduan, badu honetan ere ikastetxeentzako eskaintza zabala, lau urtetik hasi



● LUIS AZANZA

soslaia

eta hemezortzi urte arte. Gure ideia irakasleei ez ezik ikasleei ere astronomiaren inguruko ezagutza ikasten erraztea da. Planetarioa oso baliagarria da hezkuntzarentzat. Ez dugu inor ordezkatzen, gure helburua ez da hurbiltzen diren guztiak astronomiaz jakitea, baizik eta datorren astronomiaz zerbait ikasi bidenabar aspertu ez dela jakitea. Zientzia proposamen horiekin kontzeptuak erakutsi baino gehiago ikaslearengan jarrerak suspertu nahi ditugu, zientziarekin harremana zuzena izan dezan.

■ Ildo horretan, zein proiektu dituzue abian?

Joan den urtetik, ikasleekin hiru saio egiten ditugu asteartetik ostiralera. Joan den urtean 50.000 ikasle etorri ziren. Aurten esperientzia errepikatu egiten da eta proposamena haur eskolaketara ere zabaldu da. Egun hamar programa ditugu eta gaz-

te afizio zena ogibide bilakatu zaio Javier Armentia gasteiztarrari. Fisika Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean ikasi zuen eta Astrofisika espezialitatea Madrilgo Complutensean egin zuen. Nafarroa lanera duela zazpi urte etorri zen eta Planetarioko zuzendaria da zabaldu zenetik.



Sasi zientzien Arrazoizko Alternatiba Elkarteak burua, astronomiaren inguruan sortu diren hainbat iritziri argia ematen saiatu da eta arrazoizko iritzirik zabaldu. Nafarroako Astronomia Elkarteak kide askok kolaboratzen dute elkararekin, eta urtean bitan behaketa publikoak egiten dituzte elkarrekin.



Planetarioan duen lana oso gustuko du alde zientifiko eta humanoa uztartzen dituelako. Planetarioak 90 milioi pezetako aurrekontua du (3.600.000 libera), eta horietatik 45 Nafarroako Gobernutik jasotzen ditu. Gainontzekoa sarrerek eta erakundeekin egindako hitzarmenak estaltzen dute.

telaniaz zein euskaraz emittitzen dira.

■ Baduzue beste proiekturik?

Eguberrietarako programa berezi bat egiten ari gara. Beste urte batzuetan ere egin izan ditugu. Aurten egin duguna haurrei zuzendua da. Ipuin klasiko bat

hartu dugu, antxumeak jaten dituen otsoaren istorioa, eta zeruan kokatu dugu idenabar zeruan aurki daitezkeen zarrak, konstelazioak, ilargia, izarrak ikasteko...

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Pello Goñi

Hiri atsegina

AISE KONFORMATZEN DIREN FUNtzionariak, espekulatuzaileak, agintearen meneko hiritarrak eta hirigileez mozorroturiko zatikatzaileak... Hauekengana guztiengana eramaten gaitu hiri desegin batek, Alejandro Rossiren esanetan. Iruñea aspaldian desegin zen. Agian, hondamendia harresiak bota zituztelarik hasi zen. Orain hiri atsegina dela esaten dugu harro, bai, atseginetako bat bizitzeko, arrunt funtzionala. Atsegintzat dugu kaskarkeria onartu dugulako. Atsegina, itsuskeria geureganatu dugulako. Gizatasunik gabeko arkitektura geure inguruaren ezaugarri nagusi bilakatu dugu eta izugarritzko inpaktu estetiko dena, beste inon onetsiko ez genukeena, ontzat eman dugu denboraren poderioz, geure orotzapenaren dekorazio bihurtuz, geure bizitzaren zati bat balitz bezala. Tulebrasko Monastegi plazako anfiteatro zakarra, Barañaingo porlanezko erraldoiak, Milagrosa auzo iluna, Errotxapea, Orvínako inaurratagia, Mendebaldeko alderdi luxuzkoa -enetzat salbuespenak salbuespen biziki itsusia dena-, hirian barreiatuak dauden hainbat eta hainbat eraikin despersonalizatu eta alienatzaileak, estetikaren aurka atentatzen dutenak... Hau guztia egin da hiri atsegina honetan eta ez zaio inori erantzunkizunik eskatu. Arrunt arretatsuz izaten gara ingurugiro afera guztietan eta ez gara gai izan millo laurden bat biztanleren inguruko hiritarra zaintzeko. Beranduegi da. Iruñea desegin dute eta ez du inork erantzunkizunik eskatu, ez da koordinadorarik sortu, ez da manifestaziorik egin, ez dute inor kartzelan sartu...

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Gares:** M-Clan taldeak joko du gaur Fundamental aretoan 23:00etan.
- **Iruñea:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Andra Mari abesbatzak Pablo Sorozabalen mendeurrena dela eta kontzertua eskainiko dute Gaiarre Antzokian datorren ostegunean, 20:00etan.
- **Elizondo:** Nuevo Catecismo Catolico taldea ariko da Elizondoko Casino tabernan gaur, 22:30etan.
- **Iruñea:** Skalariak eta M.D.O. taldeak joko dute gaur, 21:00etan, Txantreako Ake-larre tabernan.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** La bicicleta boladora aurkeztuko du Pragako Antzerki Beltza taldeak, etzidamu, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

ERAKUSKETAK

- **Burlata:** Lucia Agirre Baztan margolariaren lanak ikusteko aukera dago heldu den hilaren 27ra arte udaletxeko Kultura aretoan.
- **Iruñea:** Luis Garridoren marrazki erakusketa zabalik dago hilaren bukaera arte Pintzel Galerian.
- **Iruñea:** Abenduaren 9tik 19ra bitartean Buztinaz... koloreez... loreez Gaztediaren Etxeko lore lehorrak, margo eta buztin ikastaroetako partaideen lan erakusketa dago zabalik arratsaldeko 18:30etatik 21:00etara.

ZINEMA

- **Iruñea:** Datorren ostegunean, hilak 11, En compañía de lobos pelikula eskainiko da 20:00etan Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Ikasketen Eskolan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Datorren asteartean, arratsaldeko 20:00etan, Juan Jose Martinena Nafarroako Artxiboko zuzendariak Iruñeko armarrinen inguruko hitzaldia eskainiko du Iruñeko Kutxak Armadaren Etorbideko 2an duen egoitzan.

- **Ituren:** Bertso afaria izanen da igandean Altsuena erretegiaren 21:00etan. Amuriza eta Peñagarikano ariko dira.
- **Iruñea:** Goitibera lasterketa egingen da gaur Labriteko oinezkoen aldapan 17:00etan.
- **Iruñea:** Ezkaba mendira ibilaldia egingen da etzi, 9:30etan. Gidariak Zutarrri eta Eguzki taldeak izanen dira. Izena

Auzotegi kultur etxean eman behar da 20:00etatik 22:00etara.

- **Iruñea:** Francisco Aldekoa Luzurraga EHUko Nazioarteko Harremanetako katedradunak Laguntza humanitarioaren alderdi berria: kasko zuriak hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30etan, Gaztediaren Etxean.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Ostazuriak
osto gorritzak
dauzka.
Arratoi-jendeak
jan dio bizia.
Heldu den
udaberrian,
ostazuri gorri bat
izanen da.

4 x 4 kotxe berria STX Eskarmentua ez da antzua